

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Larrialdiak, erreskateak eta hondamendi naturalak elkarrekin kudeatzeko HeliNET proiektua zuzentzen du Nafarroak

Nafarroako Gobernuarekin batera, Eusko Jaurlaritzak eta Pirinio Atlantikoen Departamenduak hartzen dute parte

Ostirala, 2018.eko martxoak 23

Gaur goizean, Europako POCTEFA HeliNET proiektua plazaratzeko topaketa egin da SOS-Nafarroaren egoitzan. Nafarroako Gobernua proiektu horren arduradun koordinatzailea da (taldeburua).



Beaumont kontseilaria eta Babes Zibileko zuzendari Isabel Anaut, HeliNet proiektuaren lan-bilerako buru.

Gaur goizean, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumont Europako POCTEFA HeliNET proiektua plazaratzeko topaketaren buru izan da. Proiektu horren helburuetako bat da, besteak beste, Pirinioetako mugaz gaindiko eremuetan heliportuen eta heliazalaren sare bat ezartzea.

Sare hori helburu honekin sortu da: arriskuen arretak eta larrialdiak, erreskateak eta hondamendi naturalak elkarrekin kudeatzea.

Nafarroatik, NASUVINSAk ere hartzen du parte proiektuan; bazkide onuradun gisa, berriz, Eusko Jaurlaritzak eta Pirinio Atlantikoko SAMU 64 ditu, bai eta Pirinioen bi aldeetako gainerako administrazioak ere, Andorra izan

ezik.

Nafarroako Gobernua 2016tik ari da lanean proiektu horretan. Proiektua EGEF funtsen finantzaketari esker jarri zen martxan, eta Mugaz Gaindiko Kooperaziorako Europako Programaren (POCTEFA) bigarren deialdian lortu zen finantzaketa hori. Programa horren xedea da Pirinioen bi aldeetako erakundeen eragile sozioekonomikoek egiten dituzten kooperazio-proiektuak sustatzea eta kofinantzatzea. Nafarroako Gobernuak 6,6 milioi euroko finantzaketa jaso du POCTEFAREN bigarren deialdian bere zenbait ardatzetan 24 ekimen garatzeko. HeliNET proiektua proiektu horien bigarren ardatzean sartzen da, klima-aldaketarako egokitzapena eta arriskuen prebentzioa eta kudeaketa sustatzen dituztenetan. Proiektu horri 2,5 milioi euro eman zaizkio.

Aurkezpen-mintegiak

Beaumont kontseilariarekin egindako lehenengo plazaratze-topaketa honetan, parte hartu dute Barneko zuzendari nagusi Agustín Gastaminzak, Babes Zibileko Zerbitzuko zuzendari Isabel Anautek eta NASUVINSAREN, Osakidetzaren eta Centre Hospitalier de la Côte Basque-ren ordezkariak. Bileran, jakitera eman da zer helburu eta jarduera egingo diren hurrengo hilabeteetan. Horien artean, aipatzekoa da bi mintegi egingo direla. Mintegi horiek apirilean egingo dira, HeliNET-ek bere baitan hartzen dituen tokiko erakundeekin (Nafarroako 67 udalerrri), proiektuaren ardatzak ezagutzera emateko eta heliportuen edo heliazalaren kokapena zehazteko.

Ekainaren 13an eta 14an udal ordezkariekin topaketak egin ondoren, biltzar bat egingo da Iruñeko Planetariumean “Helikopteroak larrialdietan” gaiari buruz, eta estatuko zein nazioarteko hizlariak hartuko dute parte.

Proiektua 2020ko maiatzean amaituko da.

EGEFek finantzatu du proiektua